



HEZKUNTZA BEREZIKO LAN LEGEPEKO PERTSONAL FINKOAREN 2024/25 LEKUALDATZE-LEHIAKETA

2021eko martxoaren 8n emango da <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/>

web orrian ("pertsonal hornikuntza- pertsonal EZ irakaslea- Hezkuntza Bereziko lekualdatze-lehiaketa " atalean) argitara Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2021eko martxoaren 8ko ebazpena, Hezkuntza Saileko Hezkuntza Bereziko lan-legepeko pertsonal finkoarentzat urteroko lekualdatze-lehiaketa deitzen duena.

1º.- Parte hartzeko eskaera:

Lekualdatze-lehiaketan parte hartzea formalizatzeko, irakaslegunea ingurunean eskura dagoen eskaera elektronikoa bete besterik ez da egin beharko. Eskaera elektronikorik horretara sartzeko, <http://www.hezigunea.eus> Internet-en helbidera sartu eta erabiltzailea eta pasa-hitza sartu beharko dira. Bi aukera daude:

- irakasleen posta elektronikoaren (irakasle.net) erabiltzailea eta pasa-hitza sartzea edo, posta hori izan ezean,
- NANa (hizkiarekin) eta irakaslegunearen ingurune horretara sartzeko pasa-hitza sartzea.

Pasa-hitza izan edo gogoratu ezean, pasa-hitza berreskuratzeko zerbitzu bat, "pasa-hitza lortzea edota berreskuratzea " deritzona, dago aipatutako helbidean eskura.

Pasa-hitza sartu ondoren, lekualdatze-lehiaketa- Onartzeko eskaera atalean sartu beharko du.

Lan-kategoriako eskaera bakarra egin beharko du lehiatzaile bakoitzak eta eskaera horretan eskatzen diren lanpostu guztiak sartuko dira.

Eskaera erabat bete ondoren, itxi beharko da eta "gorde" emango zaio, ondo erregistratuta gera dadin. Ondoren, eskaera egin izana justifikatzeko agiria, aplikazio informatikotik eskuratuko dena, inprimatu beharko da.

"Eskatzen dituen lanpostuak " epigrafean eskatuko dira lanpostuak. Eskaerak lanpostu eta dotazio konkretu baterako egin beharko dira.

2º.- Eskaerak betetzeko epea.

Eskaerak betetzeko **aurreikusten** den epea **2024ko apirilaren 8tik 09:00:00 15era 23:59:59 bitartekoa, biak barne**, izango da.

3º.- Aplikazio informatikoaren gida:

Prozesu honetan errazago parte hartu ahal izateko, parte hartzeko eskaera on -line grabatzeari buruzko gida bat eta, prozesua behar bezala aurrera eramateko, beharrezkotzat jotzen den informazioa Internet-en helbide hauetan emango dira argitara: <http://www.hezigunea.eus> ("albisteak " atalean) eta <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-saila/> ("lekualdatze-lehiaketa " atalean). Telefonoak 945018275 eta 945018429.